

POS-G42

PD en Investigación y Creación en Arte

KEZKAGARRI ARRAROA TERMINOAREN ERAKETA, ETXEA ETA HIRIA ESPAZIO BEZALA HARTUTA. TWIN PEAKS TELESAILTIK, ZENBAIT PRAKTIKA ARTISTIKO GARAIKIDETARA.

Julen Agirre Egibar Zuzendaria: Jesus Melendez Arranz

EHU/UPV Arte Ederren Fakultatea Margolaritza departamentua

Kezkagarri arraroaren kontzeptuaren identifikazioan, Sigmund Freuden unheimlich terminoa eta Giorgio de Chiricoren arrarotasun eta momentu metafisikoaren ideien arteko lotura egin dugu, gero, Jean Clairen l'inquiétante étrangeté terminoarekin arrazoitzeko. Prozesu horretan, errusiar formalistek arrarotzearen ideia nola ulertu zuten aipatu dugu, eta honekin lotuta, kezkagarri arraroaren fenomenoak bere baitan duen alde bikotasunaren inguruan landu duten egile eta ideiak ikusi ditugu: Eugenio Triasek aipatzen zuen sacer terminoa, Claudia Lirak aztertutako tó deinón definizioa edo Julia Kristevaren l'abjection esaterako. Hal Fosterrek edertasun konpulsiboaren ideiarekin, Sigmund Freud, Surrealismoa eta XX. mendeko arkitekturaren zenbait mugari agertu dizkigu. Modu honetara gure ikerketa eremura, – etxea/arkitektura/hiria – gerturatu gara. Kezkagarri arraroa, etxea, hiria eta ez-lekuen eremutik aztertu dugu, eta leku hauetan kontzeptu hori zein modutara eratzen den ikusi nahi izan dugu. Horretarako, hainbat adibide grafikoatara jo dugu, bereziki zinemagintzari begiratu diogu eta guretzat interesgarriak diren adibideak gure susmo eta hausnarketekin gurutzatu ditugu. David Lynchen zinema guretzat, klabea da kezkagarri arraroaren giroaren eraketan, eta beraz ikerketaren erdigunean kokatu dugu. Zuzendariaren lanean, etxearen eta honenbestez auzoaren, izaera kezkagarri arraroaren analisi sakona burutu dugu. Twin Peaks telesailean aurkitu dugu, guri interesatzen zaigun fenomenoaren adibiderik adierazgarriena, eta guretzat garrantzitsuak diren aspektuak nabarmendu ditugu. Twin Peaksetik, zenbait praktika artistiko garaikide ikustera igaro gara. Bereziki interesgarriak iruditu zaizkigu, Peter Doig, Lus Tuymans, Jeff Wall edo Serban Savuren lanak. Artista guzti hauetan kezkagarri arraroaren zantzuak atzeman ditugu, eta aurretik aztertutako guztiaren bitartez susmo horiek egiaztatu ahal izan ditugu. Serban Savu artista gazte errumaniarraren lana aztertu dugu, eta tesiaren parametroetatik begiratuta irakurri ditugu bere obrak. 2013. urtean artistaren Clujeko (Errumania) estudioa eginiko bisitak eta bertan berari eginiko elkarrizketak, Serban Savuren obran kezkagarri arraroaren irakurketa, susmoa baino zerbait gehiago dela ondorioztatu dugu. Azkenik gure praktika artistikoari lekua utzi diogu, eta gure azken urteetan eginiko proiektuak tesiaren prismatik irakurri ditugu.